

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Agortze zantzuak

Aste honetako datuen argitara pandemia-
ren laugarren olatu betean gaude. Osa-
sun larrialdiaren kudeaketa, oro har,
akatzeko eta kontraesanez beteak izan ba-
da, azken olatu honen bueltakoak muga
guztiak gainditu ditu: txertaketa hilabe-
te gutxitan asko azkartuko zela jakinda barkaezina
iruditzen zait Aste Santuko oporrek egin dena. Es-
perientzia luzea baitaukagu honezkero, udako opo-
rraldiak hauspotzeak ekarri zuena eta gabon ondoko
hirugarren olatua bizi izan ditugu. Ulergarria da go-
bernuek iritzi publikoa aintzat hartzea, eta gizartean
dagoen nekea arintze aldera osasun neurriak lasaitze-
ko tentazioa izatea. Horraino uler dezaket, nahiz za-
lantzarik ez dudan gobernu ona bere ardurak hartzen
dituena dela, erantzukizunak betetzeak zer kostu poli-
tiko dakarkion erreparatu gabe. Baina, aizu, zer mun-
dutan bizi garen ikusita, Urkullu eta Revillaren arteko
hura, egia esate aldera, ez dago batez bestekotik oso
behera.

Alabaina, hilabete gutxi-
tan txertaketa azeleratuko
zela aurreikusita eta
gehiengoak Aste Santuko
oporak galdutzat eman eta
burua uda garaian jarri
zuela ikusita, osasun neu-
rriak arintzea sekulako as-
takeria izan da. Eta haue-
xek dira ondorioak.

Administrazioaren rol
aktibo eta ekintzailea azpimarratzen duten diskurtso-
ek indarra hartu dute azken garaiotan. Badirudi orto-
doxia neoliberalak pitzatu egin dela, eta parez pare di-
tugun gizarte erronkei heltzeko orduan estatuaren
funtzioa birbaloratzen ari dela. Zeregin erregulatzaile
eta birbanatzailetik askoz harago doan administrazio
eredu baten ezinbestekotasuna aldarrikatzen dute
planteamendu horiek. Orain arteko hegemonia neoli-
berala dogma faltsuetan oinarritu dela esaten da, eta
porrot egin duen eredu sozioekonomiko bat ekarri
duela. Soluziobidea administrazioaren lidergoa be-
rreskuratzetik etorriko litzateke, garapen ekonomiko-
ari eta berrikuntzari norabidea emango liokeena. Ha-
rreman publiko-pribatua birdefinitzea eskatzen du
horrek: estatua ez dago errentagarria ez dena finan-

tzatzeko errentagarria bihurtzen denean esku pribatuetan uzteko, inbertsio publikoak egonkorra izan behar du, esan bezala, berrikuntzari norabidea emateko, baina baita ere jarduera ekonomikoak sortzen duen itzulkinaren zati bat administrazioa bueltatu eta berrikuntza prozesu berrietan berrinbertitu dadin. Hala-
ko administrazio eredu batek arriskuak hartu eta esperimentatzeko ausardia eskatzen du, agertoki berriak irudikatuz eta porrot egiteko aukerak izan ditzaketen bideak entseatuz.

Pandemiaren kudeaketan euskal erakundeak adierazten ari diren gaitasun faltak erakusten du zeinen urrun gauden irekitzen ari den ziklo ekonomiko berri honek behar duen lidergo politikotik. Ezin da dena berdindu, badira aldeak Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren jardueraren artean, eta badi-
ra diferentziak Eusko Jaurlaritzako sailen artean ere. Prozesu asko harilkatuko dira neke instituzional honen atzean, baina bada bat nahikoa argi ikusten has-

Badirudi ortodoxia neoliberalak pitzatu egin dela, eta parez pare ditugun gizarte erronkei heltzeko orduan estatuaren funtzioa birbaloratzen ari dela

ten dena: EAJk agortze zantzuak erakusten ditu. Esango nuke, lehen aldiz, EAJk zailtasunak dituela indarra hartzen ari diren sektore ekonomikoekin lerratze-
ko. Aste honetan bertan, Europako Kontseiluak klimaren legea onartu du. Bidenek Roosevelt-en garai-
tik ikusten ez zen estimulu programa bat jarri du martxan. Berlinek austeritate politikekin mehatxu egin du baina azken urteetan entzun ez diren kritika-
kak jaso ditu ekonomialari aleman ortodoxoen partetik ere. Ziklo ekonomiko berri bat ireki delako zantzuak dira, eraldaketa handi baten aurrean gaudela iragartzen digutenak.

Bitartean, mundu paralelo batean, Arantxa Tapiak hau esan du Euskaltelen harira: «No vivimos en un país comunista». •